



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, 2024KO IRAILAREN 9KO AGINDUA ALDATZEKO PROIEKTUA ONARTZEN DUENA. AGINDU HORREN BIDEZ, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ESKOLA-JANTOKI ZERBITZUAREN PREZIO PUBLIKOAK EZARTZEN DIRA.

ORDEN DE LA CONSEJERA DE EDUCACIÓN, DE APROBACIÓN DEL PROYECTO DE MODIFICACIÓN DE LA ORDEN DE 9 DE SEPTIEMBRE DE 2024, POR LA QUE SE FIJAN LOS PRECIOS PÚBLICOS DEL SERVICIO DE COMEDOR ESCOLAR EN LOS CENTROS DOCENTES PÚBLICOS NO UNIVERSITARIOS DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO

Hezkuntzako sailburuaren 2026ko martxoaren 31ko Agindua bidez, hasiera eman zitzaion Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan eskola-jantokiko zerbitzuaren prezio publikoak finkatzen dituen 2024ko irailaren 9ko Agindua aldatzeko proiektua egiteko prozedurari.

Por Orden de la Consejera de Educación, de 31 de marzo de 2026, se dio inicio al procedimiento de elaboración del proyecto de modificación de la Orden, de 9 de septiembre de 2024 por la que se fijan los precios públicos del servicio de comedor escolar en los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Proiektu honen helburua da agindu hori aldatzea, 4. artikuluan aurreikusitako prezio publikoaren hobaria kentzeko.

El presente proyecto tiene como finalidad la modificación de dicha Orden, con el objetivo específico de suprimir la bonificación del precio público prevista en el artículo 4 de la misma.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15. artikulua jasotzen duenez, xedapen orokorren proiektuak idatzitakoan, dagozkion negoziazio, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik, dagokion testu artikulatuak prozedura hasteko agindua eman duen organoaren alde aurreko onarpena izan beharko du.

El artículo 15 de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, dispone que, una vez redactados los proyectos de disposición de carácter general, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan, el texto articulado correspondiente deberá contar con la aprobación previa acordada por el órgano que haya dictado la orden de inicio.

Horrenbestez,

En su virtud,

EBAZTEN DUT

RESUELVO

Lehenengoa.- Onartzea Hezkuntzako sailburuaren 2024ko irailaren 9ko Agindua aldatzeko agindu-proiektua. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiko zerbitzuaren prezio publikoak arautzen dira.

Primero.- Aprobar el proyecto de Orden por el que se modifica la Orden, de 9 de septiembre de 2024, de la Consejera de Educación, por la que se regulan los precios públicos del servicio de comedor escolar de los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Bigarrena.- Xedapen orokorrek egiteko prozedurak aurrera egin dezan beharrezkoak diren izapideekin jarraitzeko agintzea.

Segundo.- Ordenar que se prosigan los trámites necesarios para la continuación del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean.

Vitoria-Gasteiz, a la fecha de la firma electrónica.

BEGOÑA PEDROSA LOBATO

HEZKUNTZAKO SAILBURUA / CONSEJERO DE EDUCACIÓN

